

Esp.: 2018/IDA_DEK0082

2018 000000120

Xedea

Kontratazio mahai orokor barria izendatzea, Sektore Publikoko Kontratuen 9/2017 Legeak xedatzen dauanagaz bat etortzeko.

Aurrekariak

Lehenengoa: Bermeoko Udalak hainbat kontratazio mahai daukaz izendatuta, baina martxoaren 9an indarrean sartuko dan Sektore Publikoko Kontratuen 9/2017 Legeak arautzen dauanagaz bat etortzeko, barria izendatu beharra dago.

Bigarrena: 2018ko otsailaren 6an, Idazkaritza saileko AOTk erabagi proposamena emon dau.

Argudioak

Bakarra: Aitatutako Sektore Publikoko Kontratuen 9/2017 Legeak honakoa xedatzen dau bere 2. Xedapen Gehigarriaren 7. Atalean honakoa dino: "La mesa de contratación estará presidida por un miembro de la Corporación o un funcionario de la misma, y formarán parte de ella, como vocales, el Secretario o, en su caso, el titular del órgano que tenga atribuida la función de asesoramiento jurídico, y el interventor, o, en su caso, el titular del órgano que tenga atribuidas la función de control económico-presupuestario, así como aquellos otros que se designen por el órgano de contratación entre el personal funcionario de carrera o personal laboral al servicio de la Corporación, o miembros electos de la misma, sin que su número, en total, sea inferior a tres. Los miembros electos que, en su caso, formen parte de la Mesa de contratación no podrán suponer más de un tercio del total de miembros de la misma. Actuará como Secretario un funcionario de la Corporación".

Hori horrela, legeak sustatu gura dauan kontratazio mahaien teknikotasuna bermatze aldera, eta Bermeoko Udalak daukan behin-behinekotasun altua kontutan eukita, mahaian zinegotzi bakarra egoteko proposamena egiten da, udal talde ezbardinetako zinegotzieri, kontratazio mahaietako batzarretara entzule moduan joateko aukera emotearen kalte barik.

Erabagia

Goian aitatutako guztia kontuan hartuta honako hau erabagi dot:

LEHENENGOA: Bermeoko Udalaren Kontratazio Mahai orokorra modu honetan onartzea:



Lehendakaria: Kontratuaren sail arduraduneko zinegotzi delegatua edo bere ordezkoa.

Kideak: Udaleko idazkari orokorra edo bere ordezkoa, Udal kontu hartzailea edo bere ordezkoa, Administrazio Orokorreko teknikari bat eta kontratuaren sail arduraduneko teknikari bat.

Idazkaria: Kontratuaren sail arduraduneko administrari edo administrari laguntzaile bat.

BIGARRENA: Udal talde ezbardinetako kideeri, kontratazino mahaietako batzarretara, entzule moduan bertaratzeko eskubidea onartzea.

HIRUGARRENA: Erabagi hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzea, eragina izan daian.

LAUGARRENA: Erabagi honen barri emotea udaleko sailburueri eta Udal taldeetako bozeramaileeri.

BOSGARRENA: Hurrengo Osoko Bilkuran Dekretu honen barri emotea

Orri-oinean sinatzailea eta data.



Agiri hau benetakoa da, eta
07E20000B09000C2N7X9E9H1P2
kodeagaz egiaztatu daiteke
Udalaren egoitza elektronikoan

SINATZAILA eta DATEA

IDURRE BIDEGUREN GABANTXO(P4802100J-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-Alkatea -
06/02/2018
CN=tsa.izenpe.com, OID.2.5.4.97=#0C0F56415445532D413031333337323630, O=IZENPE S.A., C=ES -
06/02/2018 21:12:05

EXPEDIENTE::
2018IDA_DEK0082
Data: 06/02/2018
Ordua: 00:00
Und. reg:REGISTRO
GENERAL

